

AEB, ISRAEL, SAUDI ARABIA, IRAN... OMANGO GOLKOAN NOR ARI DA PETROLIO-ONTZIEI ERASOTZEN?

Maiatzaren 19an lau petrolio-ontzi leherkariz matxuratu zituzten Fujairah hiriko portuan, Emirerri Arabiar Batuetan. Ekainaren 13an beste bi eraso eta sutu zituzten Omango Golkoan. Nor dabil gerra probokatzen? Geopolitika aferetan beti kontutan hartzekoa –eta nabarmen AEBen aurkakoa– den Moon of Alabama blogak plazaratutako “Trumpi bere kontra bihurtu zaio Iranen aurkako ‘Presio Maximoa’ kanpaina” analisiaren pasarteak dakartzagu euskaratuta.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Ekialde Hurbilean bezala Amerikako Estatu Batuetan asko dira interesa daukatenak Iranekin gatazka militarra pizteko. Horien arteko gehienak gai dira ontzi zibilen kontrako eraso klandestinoak egiteko. Bistakoa zen AEBek Irani egotziko ziotela eraso. Baina Israelgo analistek ere zalantzan jartzen dute azken erasoon erantzule Iran denik. Alemaniako Gobernuak susmoak ditu AEBek erakutsitako bideoaren sinesgarritasunaz. Beste batzuek amerikarren kontaktuzunean kontraesanak ikusten dituzte.

Gezurrezko banderapeko eraso [false flag attack] baten erantzule izateko hautagai probableena Israel da, noski. Netanyahu lehen ministroak azken 25 urteotan nahastu ditu bazterrak Iranen kontra. Sarritan mehatxatu du zuzenean erasotzeaz, baina nahiagoko luke AEBek egitea hori. Mossad Israelgo zerbitzu sekretua gai da horrelako operazioak egiteko, jakina baita Israelen urpeko ontziak arituak direla Arabiar Itsasoan.

Saudi Arabia estu hartzen dute Huthi indarrek hegoaldeko bere mugetan. Hauei laguntzen die Iranek. AEBek Iran erasoko balute, saudiei arindu bat emango liekete. Saudiek beren estatua-ren gastuak finantzatzeko beharrezkoa dutea petrolio upela 60 dolarren gainetik egotea. Prezioak igo arazten dituen edozer ondo datorkie, petrolio-ontzien kontrako erasoak barne. Jamal Khashoggiarekin erakutsi zuenez, saudiak gai dira eraso klandestinoak burutzeko erreparorik gabe.

Yemeneko krimenean saudien sozioa Emirerri Arabiar Batuak dira, Mohammad bin Zayeden agintaritzaz gupidagabearekin. Bin Zayed da AEBen Iranen kontrako politiken sustatzaile nagusietakoa. Blackwater [gerrako azpi-kontratista] konpainiako Eric Prince kontratatu zuen bere armada mertzenarioa eraikitzeko. Prince AEBetako marine izana da, itsasoan operazio klandestinoak burutzeko entrenatua; itsas-ontzien azpitan bonbak jartzen ikasten dute marineek, preseski.

AEBetako lehendakari Donald Trump bere administrazioan sartu ditu Iranen gorrotatzen duten hainbat. John Bolton Nazio Segurtasunerako aholkulariak urteak daramatza Teheranen errejimena aldatzea aldarrikatuz eta, ezaguna denez, armadako hierarkia katea saihesten du.

CIA ere hor dago. Duela bi urte operazio zentro berria osatu zuen Iran erasotzeko, helburuok: “Iran Mission Centerrek bildu eta batean jarriko ditu analisiak, operatiboetarako pertsonalak eta CIAren espezialistak agentziaren ahalmen guztiak eskaintzeko, ezkutuko ekintzak barne”.

Gezurrezko banderazko erasoak aspalditik dira AEBen gutizia. [Independetzia gerra piztu zuen] Boston Tea Party kolonoek burutu zuten indiarrez mozorrotuta. Gogoan duzue [Kuban Espainiarrei gerra deklaratzeko] Maine ontziarena? Sekula gertatu ez zen Tonkinoko eraso [Vietnami gerra deklarazioa]

tzeko]? Siriako Gobernuak errudun egiteko AEBek ordaindutako ekintzaileek prantatu eraso kimiko faltsuak?

Estatuez gain, badira arizale gehiago Omango golkoan petrolio-ontziak erasotzen aritu ahal izan direnak. MEK-eko mujahidinek Iranen kontrako erasoak eginak dituzte, baina ez da talde bakarra. Soilik azken bi urteotan Balutx taldeak Pakistanekiko mugan, Ahvaz mugimenduko arabiar separatistak, Estatu Islamiarra, talde kurduak...

Aipatutako guztiak dauzkate motiboak eta gaitasunak horrelako erasoak egiteko, Iran utziz errudun. Horregatik, edonork erantzun dezake “hara zer kaka zaharra!” AEBetatik Pompeok esan duenean ezin izan dela izan “Iran ez beste inor”.

NI ESTU BANABIL, ORDUAN DENOK ESTU

Alabaina, jartzen baldin bagara Iraneko agintarien lekuan, konturatuko gara oso posible dela beraiek izatea, *Asia Times*-ek justu egunetan Iranen estrategia berriaz plazaratutako analisisan esan duen bezala: Irango goi kargu batek aitortu dionenez, iraniarren helburua da saudiei presio egitea hauek Trumpi eskatu diezaioten Irani presioa arintzea. Tumpek bere presioa arintzea, ordea, ez da aski irandarrentzako, hauek nahi du AEBetako lehendakariak erabat ezabatu dezala ‘maximum pressure’ [presio maximoa] kanpaina osoa... eta horretarako Iranek Trumpi berari bideratuko dio bere presio osoa.



'KOKUKA COURAGEOUS'

PETROLIO-ONTZI JAPONIARRA
MINAZ LEHERTARAZITA
SUTU ZUTEN EKAINAREN 13AN
OMANGO GOLKOAN.

Teherango goi mailetan iturri oso onak dauzkan Elijah Magnierrek idatzi berri du bere blogean: "Irango erabakitzaile nagusien oso hurbileko iturriek errepikatu dituzte Hassan Rouhani lehendakariaren eta Sayyed Khamenei lider gorenaren nazioarterako aholkulari Ali Akbar Velayatik esandako hitzok: 'Iranek ezin badu petroliorik saldu Persiako golkoan barrena, Ekialde Hurbileko beste inork ere ezin izango du petroliorik saldu'.

Ondo informatutako iturri honek esandako gehiago: "Golkoan gatazka arinduko da soilik Iranen kontrako zigorrak ezabatzen badira. Bestela, eraso gehiago gerta daitezke eta tentsioak gora egingo du. Iranek sufritzen badu, mundu guztiak sufrituko du berdin. [...] Trumpek apustu egin du *status quo* honen jarraitzearen alde, baina Irani ez

zaio komeni, bere ekonomia gogor ari baita sufritzen. Trumpen esku geratzea litzateke zauri ekonomiko sakona zapiz estali eta geldirik aguantatzea Trumpek bere lehenengo aginte aldia amaitu arte. Hori ez da gertatuko. Golkoan tentsioa Trumpek sortu zuen itun nuklearra hautsiz, orain berak paga dezala prezioa. Iranek ezin badu bere petrolio esportatu, horrek esan nahi du gerrarako prest egon behar duela". Alegia, Iranek esaten diola Trumpi: "Presiorik handiena nahi baldin baduzu, hona gure erantzuna".

Egoera izugarri nahasi eta kontraesankorra da orain, bai Iranek eta bai bere etsaiek interes taktiko berdinak dauzkatelako. Bi aldeek nahi dute eskualdean gauzak gehiago berotzea. Ondorioz, seguru horrelako eraso gehiago gertatuko direla.

Iranek kalkulaten du Trumpek arriskua ikusi eta ohartuko dela horrelako gatazka batek bere lehendakaritza piktura eramango lukeela.

Kalkulatu behar dugu katua eta xagua bezala ariko direla datozen hamabi hilabeteetan. Trumpek bi aldeetako presioak jasoko ditu. 2020ko udaberri eta uda arte dauka bi aukeren artean erabakitzeko tarte. Epe horretan, petrolio-ontzien gerra honetan istripu gehiago ikusi beharko ditugu. Protagonista gehiegi daude horrelako erasoak gertatzeko motiboak eta ahalmak dauzkatenak, denak ere erantzukizuna gezurtatzeko prest. Horregatik da hain arriskutsua egoera.

Honaino Moon of Alabamaren analisia. Kanpoan utzi ditu Errusia, Txina, Europa... Eta denek daukate -daukagutako jokoa Omango Golkoan. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com